



2021/2022 ikasturtea

**KONTINGENTZIA-PLANA**  
familientzat eta ikasleentzat

---



## TOBERA MUSIKA ESKOLA

TOBERA Musika-eskola • IFK: G-20323655 • Elkarleen Erroldan AS/G/02172/1990 zenbakiarekin inskribatua • tobera@tobera.org  
Posta-helbidea: Jabier Otaegi kultura-etxea - 20215 Zegama. Kultura-etxea, z.g. - 20214 Segura. Kultura-etxea - 20214 Zerain

### Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaratutako "PROTOKOLO OROKORRA: 2021/22 IKASTURTEAN IKASTETXEETAN COVID-19 KASUAK AGERTZEN DIRENEAN JARDUTEKO PROZEDURA" izenburuko txostenetik ateratako zenbait ideia eta horien egokitzapena TOBERAra:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa\\_coronavirus/eu\\_def/adjuntos/Protococcolo\\_COVID\\_19\\_100621\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa_coronavirus/eu_def/adjuntos/Protococcolo_COVID_19_100621_e.pdf)

Agente guztiak aurrez aurreko eskola-itzuleraren alde posizionatu ziren duela urtebete. Baita lortu ere: hezkuntza-komunitateak 2020/2021 ikasturtean pandemia kudeatzen lortu zuen emaitza bikaina izan zen, aurreikuspenak hobetu eta ikasturtea aurrez aurre garatzea lortuta neurri oso handian. Hori bera da 2021/2022 ikasturtearen atarian ez soilik itzulera-unerako helburua, baizik eta baita ikasturte osorako helburua ere: eskolak aurrez aurre emateko modua ahalbidetzea. Hori bai, guztion erantzukizuna da itzulera hori segurua izateko beharrezko babes-neurri guztiak –indibidualak eta kolektiboak– hartu eta betearaztea, eta hala jarraitzea ikasturtean zehar ere. Hain zuzen ere, "zuhurtzia" da Hezkuntza Sailak aldarrikatzen duena, eta ikastetxeak "ikuspegi ezkorrenarekin" presta daitezen nahi dute. Hartara bideratu dute 2021/2022 ikasturterako prestatu duten kontingentzia-plana, eta protokoloa irizpide gehientsuenak orain artekoen berdintsuak izango dira. Beraz, distantzia, musukoa, higienea eta aireztatzea izango dira aurrerantzean ere gure zutabe. Egoera hobetzen doan heinean, neurriak lasaiatzen joatea da asmoa → dinamikotasuna.

Ezeren aurretik, ordea, aitortu beharra dago Hezkuntza Sailak argitaratutako aipatu kontingentzia-plana irakaskuntza orokor arauturako dagoela pentsatuta, eta ez berez musika-eskoletarako. Komeniko litzateke musika- eta dantza-eskoletarako ere jarraibide orokorrak izatea, baina, horren faltan, TOBERA Musika- eta Dantza-eskolak 2020/2021 ikasturtean izandako esperientziaren arabera saiaturako gara hutsuneak betetzen, aurreko ikasturtea TOBERAn ereduagarria izan baitzen ildo horretan, batere broterik sortu ez zelako bertan eta kanpoan gertatutako kutsatzeak egoki kudeatzen asmatu zelako.

Honako txostenak TOBERA Musika-eskolak 2021/2022 ikasturterako diseinatutako protokoloaren ezaugarri nagusiak biltzen ditu, eta aurretik egindako kontingentzia-planen osagarri da (aurretik indarrean izan ditugun neurri asko arindu eta ezabatu dira 2021/2022 ikasturterako, legeak horretarako aukera eman eta txertaketa-kanpainak ahalbidetuta).

### Printzipioak

**Musikaren eta euskal dantzen irakaskuntzari eta praktikari eutsiko diegu**, norberaren eraketarako eta kultura kolektiborako hezkuntza artistikoak duen egundoko balioaz kontziente eta TOBERAren zereginarekiko arduraz.

Ikasleei **banan banakako arreta** emango diegu.

**Ikasle zaurgarriak** identifikatuko ditugu (edo hezkuntza-premia bereziak dituztenak): osasun-premia bereziak dituztenak, egoera ekonomikoagatik, IKT baliabiderik ez dutelako (hardwarea edota konexioa), e.a. Horiek albo batera gera ez daitezten ahaleginduko gara, baina, halakoetan, komeni da ikasleak berak edota familiak jakinaraztea musika-eskolari zein den egoera jakina, ahalik eta azkarren eta egokien erantzun ahal izan diezaiozun. Musika-eskolak erabateko konfidentzialtasuna bermatzen du jasotako informazioaren gainean.

**“Familien inplikazioa** eta koordinazioa bultzatzea eta sendotzea” helburuetako bat bezala markatzen da aipatu txostenean –iaz bezala–. Agerikoa da zuen laguntza –familiena– beharrezkoa izango dugula aurrera begira gerta litekeenaren baitan, 2019/2020 ikasturteko azkeneko hiruhilekotik izan den moduan. Baita pazientzia ere, guztion aldetik. Aldez aurretik, eskerririk asko.

**“Higiene- eta prebentzio-ohiturak”** “lantzen eta sustatzen” saiatuko gara ikasleen artean, kutsatze-arriskuak murrizteko xedearekin.

## Babes-neurriak

Segidako hauek dira funtsezko segurtasun-, osasun- eta higiene-neurriak, SARS-Cov2-ren transmisio-arriskua nabarmen murrizten lagun dezaketenak. Ekintza horiek bost lerrotan bil daitezke eta 5 ekintza-multzo horietan esandakoa betetzeko ahalegina egingo dugu TOBERA Musika- eta Dantza-eskolan 2021/2022 ikasturtean:



1. **1,5 metroko segurtasun-tartea** izatea pertsonen artean. Oinarrizko neurria da, infekzioa transmititzen duten arnas-tanten eremutik kanpo egoteko. Tanta horiek hitz egitean edo doministiku edo ezul egitean sortu eta zabaltzen dira. Dena den, hori ahal denetan egingo da. Izan ere, ezin dugu ahaztu musikak –eta dantzak– ikasleen arteko interakzioa eskatzen duela maiz eta sozializazioa irudikatzen duela. Aireztapena izango da orduan *antidotoa*.

Espero izatekoa da espazioa ez izatea arazo TOBERA Musika-eskolarentzat, ez Zegaman, ez Seguran eta ezta Zerainen ere. Herri guztietan 2020/2021 ikasturtean erabilitako espazioak erabiltzen jarraituko dugu 2021/2022 ikasturtean.



2. **Maskara** homologatuak zuzen erabiltzea. Dena den, kontuan hartu beharrezkoa da zenbait musika-tresnaren kasuan ezinezkoa dela maskarekin egotea, eta, kasu horietan, distantzia errespetatzea gako izango da.

Maskara, guztiok (6 urtetik gorako ikasleak; 6 urtekoak barne), beti eta etengabe erabili beharra daukagu (nork bere maskara ekarri beharko du etxetik). Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde. Salbuespena haizezko musika-tresnena da.

Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten irakaskuntza-jardueren kasuan, maskara erabili eta pertsonen arteko distantzia mantendu beharko da.

Salbuespenak:

- arnasketa-zailtasuna duten eta maskara erabiltzeagatik larriagotu daitezkeen pertsonak
- desgaitasuna duten edo maskara kentzeko autonomoak izatea eragozten dien mendetasun-egoera duten pertsonak
- erabilera bideraezin bihurtzen duten jokabide-aldaketak dituzten pertsonak
- pertsonak beren bizilekuan daudenean edo bakarrik daudenean.

Ezintasun edo eragozpen horiek, ahal den neurrian, segurtasun-distantziarekin eta langileek norbera babesteko ekipamenduen erabilerarekin konpentsatuko dira.



3. **Eskuak maiz garbitzea.** Eskuen higiena garrantzitsua da, eskuek gainazaletatik birusa transmititzeko duten gaitasunagatik. Urarekin eta xaboiarekin egin daiteke, baita soluzio hidroalkoholikoekin ere. Eusko Jaurlaritzaren protokoloak derrigortasunik ezartzen ez badu ere, erabilgarri jarraituko dute egoten musika-eskolaren ikasgeletan eskuak garbitzeko produktuek.


ESKUETAKO HIGIENEA (40 segundoz ura eta xaboiarekin / 20 segundoz gel hidroalkoholikoarekin):

- Ikastetxera iristean
- Doministiku egin ondoren
- Lekua edo jarduera aldatzean
- Bazkaldu aurretik eta ondoren
- Komunera joan aurretik eta ondoren
- Zikinak dauden bakoitzean

ARNASKETA:

- Eztul edo doministiku egitean, ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta estali.
- Erabili eta botatzeko zapiak erabili, mukiak kentzeko eta, erabili ondoren, tapa eta pedala dituen paperontzi batera botatzeko. Oro har, hondakinak kontu handiz bota zakarrontzietara, eta ez inoiz utzi mahaietan edo lurrera botata.

4. **Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena.** Sarritan garbitu eta desinfektatu behar dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak. Aldian-aldian eta egokiro aireztatzea ere oso faktore garrantzitsua da espazio itxietan kutsatzeko arriskua murrizteko.



Hori dela eta, garbiketa zorrotzuko dugu (desinfekzioa), aurreko ikasturtean bezalaxe → ikasle batetik bestera eta talde batetik bestera musika-eskolako irakasleak berak egingo du lan hau –edo ikasleek eurek–, baita materialarena ere (musika-tresnak, ordenagailuak, material suntsikorra, tresneria... garbitzea. Haizezko musika-tresnen kasuan, zorura eroritako listua ere garbituko da, noski), baina, egun batetik besterakoa udalen zeregina izango da (Udalak dira TOBERAK erabiltzen dituen espazioen jabeak eta haiei dagokie garbiketa sakona egitea), eta, ahal dela, materialaren eta azpiegituraren gainekoa ere bai (interruptoreak, mahaiak, manillak...). Ikasleek ere ahalik eta elementu gutxien uki ditzaten gomendatzen dizuegu; ezinbestekoak direnak baino ez, eta ikasgelan sartu eta irteterakoan, eskuak garbitzeko eta, ahal dela, begietara, sudur-zuloetara edota ahora ez eramatea eskuak.

Ikasle bakoitza beti leku berean eser dadila (aulki eta mahai bera; kokapen finkoak). Irakasle bakoitzak apuntatuko du non esertzen den nor; informazio hori beharrezkoa izango da kasu positiboren bat agertuz gero (kontaktu estuak identifikatu eta lokalizatzeko). Ikasleek atril bera erabil dezaten saiaturako gara.

Erabiltzen dituen gelak eta egoitzak herrian beste talde batzuekin partekatzen dituen musika-eskolak, espazio horien garbiketa eta, oro har, espazio-aukerak eta -beharrak modu globalean eta integralean jorratuko dituzte Udalek.



5. **Jende-pilaketak kontrolatu.** Kontaktu-kopurua murriztea. Mugatu egin behar da talde-jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua. Ahal dela, jarduerak talde txikiagoetan egin behar dira, talde egonkorak osatuz eta segurtasun-tartea mantenduz haien artean. Dena den, TOBERAren kasuan, nahikoa murriztak dira jada taldeak (askotan, gainera, bakarka egoten dira ikasleak); beraz, ez dirudi hori arazo izan litekeenik. Atal honetan, batetik, prebentzioaren ikuspegitik, beharrezko espazioak baino ez ditugu erabiliko, eskolaren barruko pasilloetan ikasleak elkar daitezten ekidingo dugu –kanpoan itxaron dezatela ikasgelan sartu aurretik–, ahal den eta baliabide gutxien erabil daitezten zainduko dugu –behar-beharrezkoa dena baino ez–, nork bere materiala ekartzea gomendatzen eta lehenesten da, e.a. Bestetik, musika-taldeei dagokienez, ia guztiak bertan behera utzi eta gero, ikasturte honetan talde-praktika berreskuratzen joango gara (trikiti/pandero-taldea, txistukoak, konboa, Musika Elkarrekin...).




Aintzat hartzekoa da, musika-praktikaren kasuan, hemengo hainbat neurri zorrotz errespetatzea oso-oso zaila dela. Beraz, zuhur jokatu du beti musika-eskolak, eta ikasle guztien segurtasuna eta babesa erdigunean jarrita hartuko ditu beharrezko **erabakiak** –famiak eta Udalak ordezkaturata dauden eskolako Zuzendaritza-batzordea izango da erabaki nagusiak hartuko diren gunea, ohikoa den bezala–. Gainera, pandemiaren garapenaren arabera, neurriak doitu beharra gerta liteke. Azken batean, musika-eskolak duen autonomia eta erabaki-ahalmena baliatuz, gure hezkuntza-komunitatearentzat aproposena den plan propioa egiten jarraituko dugu, ikasleen eta familien beharrak asetzeko, eta orain arte eskuratutako esperientzia baliatuta. Aldi berean, gure erabakiak beste musika-eskola batzuekin partekatuko ditugu, eta besteen erabakiekin alderatu, erabaki koherenteak eta kontsistenteak izan daitezten. Erabaki horien aurrean konprentzioa eta laguntza eskatzen dizkizuegu, eta, zalantzarik edo ekarpenik bazenute, gurekin harremanetan jartzeko aukera duzuela gogorarazten dizuegu beste behin.

Ikasleek ondorengo sintomen –edo ondoko sintoma hauetako batzuen– agerpena zaindu beharko dute: 37 gradutik gorako sukarrak, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usainik edo dastamenik ez izatea. Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren ohiko osasun-zentrorra deitu beharko dute. Ikusi hurrengo atalean nola jokatu gaixotasunaren sintomak antzemanaz gero.

Dena den, kontuz ibili behar da birusaren eraginpean egon daitezkeen ikasle eta langileak ez estigmatizatzeko, eta zurrumurruak eta antzekoak saihesteko eskaera egiten zaizue familiei.

### Temperatuta eta sintomak.

Banakako erantzukizunari helduz, temperatura hartzea gomendatzen da etxean bertan, ikastetxera joan aurretik, eta ezin izango dute joan sukarrak duten ikasleak (>37°C) eta COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituztenek (sukarra, eztul lehorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usaimena eta dastamena galtzea –guztiak edo aurreko sintoma hauetako batzuk izan litezke–). Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren ohiko osasun-zentrorra deitu beharko duzue ikasleek edo beren familiek.



*Sintomak zeintzuk dira? → Edozein larritasuneko arnas infekzio akutuaren (aguda) koadro klinikoa duen edozein pertsona, besteak beste, sukarrak, eztula edo aire faltaren sententzioa duena. Beste sintoma batzuk ere, hala nola odinofagia (jaterakoan mina izatea), anosmia (usaimena galtzea), ageusia (dastamenaren zentzua galtzea), giharretako minak, beharrezkoak, min torazikoa edo zefaleak, COVID-19 bidezko infekzioaren susmoaren sintomatizat har daitezke irizpide klinikoaren arabera.*

Ez dira ikastetxera joango COVID-19 diagnostikoagatik isolatuta dauden ikasleak edo etxean berrogeialdian daudenak (ezta langileak ere, noski), sintomak dituen pertsonaren batekin edo COVID-19 diagnostikatuta duenen batekin kontaktu estua izan dutelako.

Badaude COVID-19arekiko zaurgarriagoak diren osasun-baldintzak dituzten ikasleak: adibidez, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia, immunodepresioa edo hipertentsio arteriala, e.a. dutenak.

Musika-eskolan sintomatologia agertuz gero, hau izango da jarraibidea:

#### **Ikaslea**

a. Isolamendu-gela batera joango dira (maskara jarrita) ikaslea bera eta musika-eskolako langilea. Gela honek higie- eta aireztapen-neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio-zerbitzuko Arlo Medikoari jakinaraziko dio.

b. Ikaslearekin joandako pertsonak neurriak zainduko ditu: distantzia eta maskara. Sintomak dituen ikasleak eta hari isolamendu-espaziora laguntzen dion pertsonak erabiliko dute musukoa, biek.

c. Familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.

d. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.

e. Eragindako pertsona kasu susmagarritzat jotzen bada, etxean isolatuta egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan adierazitakoaren arabera.

f. Normalean, kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik abiaraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higie- neurriak zorrotzuz. Kasua berresten bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.

*Kontaktu estua: Bizikidetzaren egonkorreko taldearen eremuan (EAEEn LHko 2. maila arte), ikasle guztiak harreman estuztat hartuko dira. Gainerakoan, sintomak zituen kasu batekin leku berean 2 metro baino gutxiagoko distantziara, babes neurri gabe 15 minutuz gutxienez egondako pertsona da.*

g. Larritasun- edo arnasteko zailtasun-sintomak izanez gero, 112 zenbakira deitu behar da.

#### **Zenbait jarraibide**

---

- Adibidez, ikasturtearen hasieran ikasleei **ikasturte osoko liburuxka** banatuko zaie musika-hizkuntzan, bada ezpada berriro telematikoki lan egin behar den, teoriaren eta ariketen fotokopia guztiak eskura izan ditzaten.
- Ahal den guztietan, musika-eskolaren jarduerarekin jarraituko da, **telematikoki** izan behar bada ere (partzialki edo erabat). Berrogeialdian dagoen irakasleak telematikoki emango ditu eskolak. Ikasle bat berrogeialdian baldin badago (ez gela osoa) –nahiz eta PCR probak negatibo eman–, irakasleak ahalegina egingo du etxean dagoen ikasle horri segimendu akademikoa egiteko (telematikoki), moduak familiarekin adostuta (egoeraren jarraipena, etxerako lanak bidali...). Gela osoa baldin bada berrogeialdian dagoena, berdin, noski.



- Etxetik lan egitera bueltatuko bagina, irakasleak bidalitako ariketak, fitxak eta partiturak paperean inprimatuta behar dituzuen kasu puntaletan, eta halakorik egiteko modurik ez duzuenetan, gogoan izan jarraian herriz herri adierazitako e-mailetara fotokopiatu beharrekoa bidali eta esandako lekuetara joan ahal izango duzuela gero **kopiak** doan jasotzera (mezuak bidaltzerakoan, mesedez, gaian jarri TOBERAko fotokopietarako dela):  
MUTILOA: udala@mutiloa.eus / udaletxera joan dokumentuen bila  
SEGURA: liburutegia@segura.eus / liburutegira joan dokumentuen bila  
ZEGAMA: bulegoa@zegama.eus / udaletxera joan dokumentuen bila  
ZERAIN: zerain@udal.gipuzkoa.net / udaletxera joan dokumentuen bila
- 2020/2021 ikasturteko instrumentuko maila-amaierako **diplomak** eta musika-hizkuntzako **egiaztagiriak** 2021eko azaroko Santa Zeziliaren omenezko kontzertuan banatuko dira jendaurrean, posible izanez gero.
- Eskolak telematikoki eman behar diren kasuan, irakasgaiaren arabera, saiakera egingo da ikasleei **saio birtualak** emateko; hala, tutorizazioa edota ikasleen jarraipena errazagoa izan daitezkeelakoan. Dena den, irakasgai batzuek edota ikasle batzuen adinak ez du modurik emango horretarako, eta posta elektronikoaren bidea edota bideoen bitartezkoa erabili beharko da horiekin.
- Ildo beretik, **ikasgai bakoitzaren espezifikotasunak** kontuan hartu behar dira eskolak telematikoki eman behar izatea gertatuko balitz. Izan ere, irakasgai oso desberdinak ematen dira musika-eskolan, eta ikasleen adinak ere baldintzatzen du (beste faktore batzuek gain). Horregatik, edukiak programatzeko modua, eskolak emateko kanala, jarrera baloratzeko irizpideak eta ebaluazioa, esaterako, ezin dira berdinak izan gitarran eta dantzan, musika-hizkuntzako 1A taldean edo 2E taldean, e.a.
- Aldi berean, zenbait ekintza edo jardunbide egoera orokorrera **baldintzatuta** geratuko dira (ez du bakarrik TOBERAn gerta litekeenak baldintzatuko, baizik eta baita testuinguruak TOBERAn eragin lezakeenak ere): adibidez, ume txikien edo adinekoen zaintza beren gain duten langileek muga izan dezakete musika-eskolako beren lana beharrezko malgutasunez bete ahal izateko (kontziliazioa bilatu beharko da).
- Bistan denez, TOBERAn egiten dugunak eragina izango du **ingurunean**, eta inguruneak ere eragina izango du gure egunerokoan. Beraz, lotuta egin beharko dugu lan guztiok: Udalak, herri-eskola eta haur-eskolak, eskolaz kanpoko jarduerak ematen dituzten elkarteak, osasun- eta gizarte-langileak eta -zerbitzuak, e.a.
- **Komunik** ez partekatzeke aholkatzen da, eta itxaroten den bitartean pertsonen arteko distantzia mantentzea. Komunak gela-orduetan erabiltzea baimenduko da ikaslearen behararen arabera, eskola baten eta hurrengoaren arteko kontaktuak murrizte aldera. **Igogailuan** ere banaka ibiltzea gomendatzen da, eta ezinbestekoa bada soilik.
- Ikasleei, oro har, jarduteko modu berrien inguruko informazioa **naturaltasunez** emateko ahalegina egingo da, beraiengan beldur-sentsazioa ahal bezainbeste murrizteko. Alderantziz, ikasleak beren galderak eta ardurak eztabaidatzera animatuko ditugu musika-eskolan, egoera hori emanez gero.
- **Batzar edo bilera jendetsuak saihestuko** dira ahal dela. Horrek ez du esan nahi eskola-praktikarekin lotutako bilera jendetsurik egin ezin litekeenik legez, betiere esandako neurriak errespetatuz gero. Segidakoak dira irailaren 7ko ordutegi-banaketarako **jarraibideak** eta, besterik esan ezean, hartuko ditugun higie-, segurtasun- eta osasun-neurriak:
  - ✓ Bilerara, mesedez, maskara edo maskarillarekin etorri ikasleak eta senitartekoak (eraikinean sartu aurretik jantzi, mesedez).
  - ✓ Bilera egingo dugun gelan eskuak garbitzeko xaboi hidroalkoholikoa eta papera jarriko ditugu; sartzetakoan nahiz irteterakoan, eskuak garbitu, mesedez.
  - ✓ Bileran zaudeten bitartean, saiatu ahalik eta elementurik eta materialik gutxien ukitzen eta erabiltzen.

- ✓ Ahal dela, ez erabili komunak.
- ✓ Pertsonen arteko segurtasun-tartea edo distantzia zaindu, unean uneko legeriak aholkatzen duenaren arabera. Banaka ibili, eta saiatu espazio komunetan ez geratzen (ez ikaskideen artean berriketan, ez beste familia batzuekin, e.a.).
- Musika-hizkuntzako aurkezpen-bilerak edota Santa Zeziliako kontzertua segurtasun-baldintza egokitan egin litezkeen baloratuko da, unean-uneko legeria kontuan hartuta.
- Beti bezala, TOBERA Musika-eskolak aldian-aldian helaraziko die **informazioa** ikasle adin nagusiei, familiei eta ikasleen tutoreei, iturri ofizialetatik ematen diren jarraibideen arabera. Duen berehalakotasunagatik, eta musika-eskolako ikasleen familien artean erabat hedatuta dagoen komunikazio-bidea dela kontuan hartuta, posta elektronikoa erabiliko da informazio-kanal modura. Hori dela eta, familiei eskatzen zaizue adi egon zaitezteela musika-eskolan jakinarazita duzuen e-mail helbidera. Emandako e-mailaz gain, beste helbideren bat ere eman nahiko bazenute, edo emandakoa aldatu nahiko bazenute, idatziezaguzue horren berri emateko. Edonola ere, egoera orokorraz informatzeko, uneoro dago eguneratuta Osasun Sailaren webgunean atal bat propio: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria/>. Gainera, jarraipen akademikorako, beti izan den moduan, **irakasleekiko harreman-bideak zabalik** izaten jarraituko duzue, eta ebaluazio-txostenak ere dagokion garaian jasoko dituzue, besteak beste (honakoa bezalako garaitan, irakasleekiko harreman pertsonalak dira zalantzak argitzeko eta tratu indibidual espezifikoak bermatzeko biderik aproposenak, hala behar denetan; beraz, ez eragozpenik izan TOBERAko langileengana jotzeko).







## **TOBERA MUSIKA ESKOLA**

TOBERA Musika-eskola • IFK: G-20323655 • Elkarteen Erroldan AS/G/02172/1990 zenbakiarekin inskribatua • tobera@tobera.org  
Posta-helbidea: Jabier Otaegi kultura-etxea - 20215 Zegama. Kultura-etxea, z.g. - 20214 Segura. Kultura-etxea - 20214 Zerain

### **Extracto y adaptación a TOBERA de lo dispuesto en el informe denominado “PROTOCOLO GENERAL: PROCEDIMIENTO DE ACTUACIÓN ANTE LA APARICIÓN DE CASOS DE COVID-19 EN CENTROS EDUCATIVOS en el curso 2021/22” publicado por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco:**

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa\\_coronavirus/es\\_def/adjuntos/Protococcolo\\_COVID\\_19\\_100621\\_c.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa_coronavirus/es_def/adjuntos/Protococcolo_COVID_19_100621_c.pdf)

La inmensa mayoría de agentes se posicionaron hace ya un año a favor de un retorno presencial a la actividad educativa. El acierto puede considerarse pleno: el resultado obtenido por la comunidad educativa en su gestión de la pandemia a lo largo del curso 2020/2021 ha sido excelente, mejorando las previsiones y consiguiendo completar el curso de manera presencial en muy gran medida. Ese sigue siendo el reto en la antesala del curso 2021/2022 no solo en cuanto al retorno se refiere, sino también en su desarrollo futuro: **posibilitar de manera continuada la presencialidad docente y académica**. Siendo esto así, es responsabilidad de todos y de todas adoptar y hacer cumplir todas las medidas de protección –tanto individuales como colectivas– necesarias para que esa presencialidad sea segura. En concreto, el Departamento de Educación reclama “prudencia” e insta a que los centros escolares nos preparemos ante la peor de las perspectivas, esperando, eso sí, que una previsible mejora de la situación nos permita más pronto que tarde relajar las medidas ahora adoptadas. La mayoría de criterios que han recogido en el plan de contingencia que a ese fin han diseñado para el curso 2021/2022 se asemeja a los que han estado vigentes en el protocolo anterior. Por tanto, distancia, maskarilla, higiene y ventilación seguirán siendo nuestros grandes aliados a corto plazo.

Antes de nada, sin embargo, hay que reconocer que el citado plan de contingencia publicado por el Departamento de Educación está concebido para la enseñanza general reglada y no propiamente para las escuelas de música. Sería conveniente que las Escuelas de Música y Danza tuviéramos también unas pautas generales, pero a falta de las mismas, trataremos de cubrir las deficiencias en función de la experiencia de TOBERA Musika-eskola en el curso 2020/2021, ya que el curso anterior en TOBERA fue ejemplar en este sentido, puesto que no se generó brote alguno en su actividad y se supo gestionar adecuadamente los contagios acaecidos en ámbitos distintos al de la musika-eskola.

El presente informe recoge las principales características del protocolo diseñado a este fin en TOBERA Musika-eskola y complementa los planes de contingencia que hemos realizado con anterioridad (amparados por la legislación existente y gracias a la avanzada campaña de vacunación, aligera y anula varias de las medidas y mecanismos que hemos aplicado hasta ahora).

## Principios

---

Nuestra apuesta será siempre **mantener la enseñanza y la práctica de la música y de las danzas vascas**, conscientes del enorme valor de la educación artística para la propia constitución y nuestra cultura colectiva, y siendo responsables del papel de TOBERA en ese sentido.

Ofreceremos al alumnado una **atención personalizada**.

Identificaremos al **alumnado vulnerable** (o con necesidades educativas específicas): por sus necesidades sanitarias extraordinarias, por su situación económica, falta de recursos TIC (hardware y/o conexión), etc. Procuraremos así que no se queden al margen en su proceso de aprendizaje, pero en estos casos lo más conveniente es que el propio alumno o alumna y/o la familia correspondiente comuniquen a la escuela de música cuál es la situación concreta, para que podamos responder lo antes posible y de la manera más adecuada posible a la situación en cuestión. La musika-eskola garantiza la confidencialidad absoluta sobre la información recibida.

En el informe citado en el encabezado se marca como uno de los objetivos "impulsar y consolidar la **implicación y coordinación de las familias**", como lo fue el curso pasado. Es evidente que vuestro apoyo –el de las familias– será necesario en el contexto de lo que pueda ocurrir a lo largo del nuevo curso, como lo ha sido desde el último trimestre del curso 2019/2020. También necesitaremos paciencia, por parte de todos. De antemano, eskerrik asko.

Trataremos de "trabajar y fomentar" entre el alumnado **"hábitos higiénicos y preventivos"** con el fin de reducir riesgos de contagio.

## Medidas de protección

---

Las medidas esenciales de seguridad, salud e higiene son las que a continuación se enumeran, como acciones que en conjunto pueden contribuir a reducir sustancialmente el riesgo de transmisión del SARS-CoV-2. Estas acciones pueden agruparse en cinco líneas:



1. Mantenimiento de la **distancia de seguridad interpersonal de 1,5 metros**. Es una medida básica para estar fuera del radio de diseminación de las gotas respiratorias que transmiten la infección y que se producen al hablar, estornudar o toser. Eso lo haremos siempre que sea posible. Porque no podemos olvidar que la música –y la danza– requiere con frecuencia de interacción entre el alumnado y es un ejercicio paradigmático de socialización. La ventilación resultará necesaria en tales casos.

Es de esperar que el **espacio** no sea un problema para la Musika-eskola, ni en Zegama, ni en Segura ni en Zerain (los grupos son muy reducidos y el espacio suficiente). Seguiremos utilizando los mismos espacios que hemos utilizado en el curso 2020/2021.




2. Uso apropiado de **mascarillas** homologadas. Teniendo en cuenta que con algunos instrumentos no es posible estar con la pantalla o con la mascarilla puesta, la distancia física adquirirá relevancia en esos casos.

La mascarilla la tenemos que utilizar todos (alumnado mayor de 6 años, inclusive) y en todo momento (cada uno tendrá que traer su propia mascarilla de casa). El uso de la mascarilla será obligatorio, aunque los alumnos estén sentados y mantengan una distancia entre personas de 1,5 metros. La excepción es la de los instrumentos de viento.


En el caso de actividades docentes que requieran movimiento, canto o similares, se deberá utilizar la mascarilla y mantener la distancia entre las personas.



3. **Higiene de manos.** Medida importante por el papel de las manos en la transmisión del virus desde las superficies. Puede realizarse con agua y jabón, y también con soluciones hidroalcohólicas. Aunque el protocolo del Gobierno Vasco no establece obligatoriedad alguna, los productos de lavado de manos seguirán estando disponibles en las aulas de la musika-eskola.



4. **Limpieza, desinfección y ventilación.** La limpieza y desinfección de las superficies en contacto con las personas tiene que ser frecuente. La ventilación adecuada y periódica es un factor muy importante a la hora de reducir el riesgo de contagio en espacios cerrados.



